


**TALDEAREN ARAUDIA BETETZEKO ETA
KONTROLATZEKO ARLOA**

Compliance Penal Kudeaketarako Ereduari
buruzko informazioa



cajasur 

EDUKIA

1. Sarrera	3
2. Printzipio orokorrak	3
3. Compliance kultura	4
4. Compliance Penal sistema kudeatzea	5
4.1. Salaketetarako kanala	7
4.2. Etengabe kontrolatzea eta gainbegiratzea	7

1. Sarrera

Kutxabank, SAK (aurrerantzean, “Kutxabank”), kredituko erakunde finantzarioa denez, hainbat erakunde arautzailek gainbegiratzen dute eta horrelako erakundeei araudiak aplikatzen dizkien jokabide eta antolamendu arau zorrotzen mende dago.

Bere jarduera garatzen duen testuinguruan funtsezkoa da bermatzea Kutxabanke delituak prebenitzeko antolamendu eta kudeaketa eredu efikaz bat duela, arrisku penala kontrolatzeko eta prebenitzeko sistema egokiak dituen, horrelako kontingentziak gertatzea saihesteko eta bermatzeko, antolamenduko zein kudeaketako ereduak araudi legalak ezarritako eskakizun guztiak kontuan hartzen dituela.

Illo horretan, Kutxabanke bere langileek eta bankurako lan egiten duten pertsona guztiak iruzurrezko eragiketak edo eragiketa desegokiak egitea prebenitzeko prozedurak eta kontrolak ditu.

Compliance Penal Kudeaketarako Ereduak erakundean sor daitezkeen arrisku penalak ditu ardatz, eta horiek gutxitzeko, neurriak eta kontrolak ezartzen ditu, eta erakundeko maila guztiei aplikatzen zaizkie jarduketa eta kontrol neurriak.

Kutxabanke bere Compliance Penal Kudeaketarako ereduak Cajasur Banco, SAUn (aurrerantzean “Cajasur”) ere ezarriko du.

Era berean, erakundeko kide guztiei eragingo die, administratzaileak, zuzendariak eta langileak barne.

Bere kontrolpean dauden erakundeei dagokienez, Kutxabanke Compliance Penal kudeaketarako eredu zehatzak ezartzea sustatuko du.

2. Printzipio orokorrak

Erakundean ezarritako Compliance Penal Kudeaketarako Ereduaren printzipioak hauek dira:

1. Hauen guztien arabera jardutea: indarrean dagoen legedia, jokabidearen eta diligentzia printzipioen kodea, aplikatu beharreko jokabide arauak eta barneko gainerako araudi guztiak.
2. Sustatzea prebenitzeko kultura korporatiboa eta ez toleratzea legez kontrako edo iruzurrezko egintzak egitea, baita etikako printzipioak eta portaera arduratsua aplika daitezela sustatzea ere.
3. Bermatzea kontrol sistema efikazak, iraunkorrak eta eguneratuak daudela une oro.

4. Gainbegiratzea Kutxabanken eta Cajasurren hartzen diren jarduketak eta erabakiak betetzen direla, horretarako ezarritako barne arauak, prozedurak eta protokoloak ere betetzen direla, baita dagozkien kontrolak ere.
5. Bermatzea printzipio orokor hauek aplikatzeko baliabide eta bitarteko egokiak, delituak prebenitzeko edo detektatzeko.
6. Gauzatzea egokiak eta proportzionatuak diren prestakuntza jarduerak, behar besteko maiztasunarekin, arlo honetako ezagutza eguneratzen dela bermatzeko eta enpresa etikaren eta lege betetzearen kultura garatzeko.
7. Transmittitzea printzipio orokor hauek aplikatu beharreko arloko pertsona fisiko edo juridiko guztiei ardura dutela ikuspegi penaletik legearen kontrakoak izan daitezkeen jokabideak gainbegiratzeko. Zehazki, beren kargura langileak edo lantaldeak dituzten pertsonen gainbegiratzen arituko dira legearen kontrako portaera penalak prebenitzeko, eta detektatu bezain laster ezarritako erakundeetara eta prozeduretara joko dute berehala eta arduraz.
8. Transmittitzea printzipio orokor hauen arloko pertsona guztiei nahitaez informatu behar dutela ezagutu duten delitu, iruzur edo irregulartasun bat gauzatu ahal izan den edozein ekintzari buruz.
9. Sustatzea une oro araudia betetzeko kultura, zeinak salatzailearen konfidentzialtasuna bermatzeko eta babesteko behar bezalako neurriekin, erraztuko duen hedapen penala duten arrisku eta/edo irregulartasun posibleak prebentzio ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela bermatzeko ardura duen erakundeari komunikatzea, horretarako ezarritako barne kanalen bidez.
10. Ikertzea ahalik eta azkarren ustez delituzkoak izan daitezkeen gertaerak, eta ikerketan parte hartzen duten pertsonen eskubideak bermatzea beti.
11. Ezagutzea legearen kontrako ekintza penal posibleei lotuta barnean araudia ez betetzeak dakarren diziplina araubidea, kontuan hartuta aplikatu beharreko barneko eta legezko araudia.

3. Compliance kultura

Compliance kulturak arauak eta etika jokabidea betetzearekiko dagoen konpromiso maila egokia erakusten du.

Compliance kultura ezarrita dagoela nabarmentzeko, ekintza hauek ezarriko dira:

1. Portaera etikoaren estandar komuna ezartzea hala gobernu organoei eta goi zuzendaritzari nola antolakundeko gainerako kideei.

2. Erregistratzea gobernu organoek eta goi zuzendaritzak era aktiboan errespetatzen eta ezartzen dutela Compliance Penal Kudeaketarako Eredua.
3. Ebaluazio egokiak egitea langile berriei haiek kontratatu baino lehen; horrela, erakundearen arrisku penala prebenitzeko ezarritako printzipioek eta urratsek duten edukiari eta garrantziari buruz izangaiek duten ulermenari buruzko iritzia lortu ahal izango da.
4. Compliance Penal ereduaren eta erakundearen balioen helburu orokorrak txertatzea langile berrientzako hasierako edo orientaziorako programetan eta Kuntxabankeko gobernu organoetako karguak, goi zuzendaritzako karguak eta bestelako funtsezko lanpostuak eskuratzeko onespenez eta prestakuntza programetan.
5. Etengabeko prestakuntza planak erakundeko kideentzat.
6. Komunikazio etengabea eta irekia Compliance Penal ereduari buruz.
7. Compliance organoak aldizka berrikuspenak egitea.

4. Compliance Penal sistema kudeatzea

Taldearen araudia betetzeko eta kontrolatzeko arloa, ekimenerako eta kontrolerako ahalmen autonomoak dituen, izango da Compliance Penal organoa, eta Compliance Penal Kudeaketarako Eredua funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura izango du.

Taldearen araudia betetzeko eta kontrolatzeko funtzioaren estatutuak xedatzen ditu organo hori arautzeko printzipioak, eta horien artean, besteak beste, independentzia dago. Horrela, bere eginkizunak gauzatu ditu **zintotasuna, zorrotasuna, proportzionaltasuna** eta **espíritu kritikoaren** parametro egokiak kontuan hartuta, eta ezarritako mekanismoen bidez sor daitezkeen **interes gatatzak kudeatuko ditu**.

Gainera, behar besteko baliabide teknikoak eta giza baliabideak ditu esleitu zaizkion eginkizunak gauzatzeko eta eginkizun horiek gauzatzeko, informazio garrantzitsu oro eskura dezake.

Compliance Penal sistemaren kudeaketa ereduak funtsezko zazpi ardatz ditu:

- Arriskuaren kontrol eredu dokumentatua: eredu sendoa izan dadin, ekiteko eta kontrolatzeko ahalmen autonomoak dituen funtzio bat behar da, gainbegiratu dezan ezarritako prebentzio ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela, baita jarduerak

arautzen dituzten eta arrisku penala prebenitzeko kontrolak ezartzen dituzten politikak, eskuliburuak eta prozedurak formalizatzen direla ere.

- Arriskuen ebaluazioa: ebaluazioaren helburua da identifikatzea jarduerak, zeinen arloan prebenitu beharreko delituak egin daitezkeen, eta zaintza eta kontrol neurriak hartzea.
- Zabaltzea, komunikatzea eta prestatzea: ezagutzea eta zabaltzea arrisku penala prebenitzeko eredia, baita erakundeetako langileei, zuzendariari eta gobernu organoetako kideei prestakuntza eta informazio planak ezartzea ere, barneko araubidea betetzen dela bermatzeko.
- Baliabide finantzarioak kudeatzea: baliabideak era egokian kudeatzea ezinbestekoa da, compliance penal kudeaketarako sistema sendo bat sortzeko.
- Salaketetarako kanalak: salaketetarako kanalak eta/edo bestelako bitartekoak izatea legearen kontrako ekintza penal posibleak detektatzeko eta komunikatzeko, zeren arrisku posibleak eta araudiaren ez betetzeak prebentzio ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela bermatzeko erakundeari informatzeko betebeharra izateak jokabide irregularrak identifikatzen laguntzen du.
- Diziplina sistema: Aplikatu beharreko barneko eta legezko araudia kontuan hartuta, barneko araudiaren ez betetzeen aurrean jarduten duen diziplina araubide bat izatea.
- Etengabe kontrolatzea eta gainbegiratzea: Compliance penal kudeaketarako sistema egoki bat izatea ez-eraginkor bihur daiteke, eredia aldi behin ez bada egiaztatzen eta ez bada etengabe berrikusten eredia mantentzeak hala eskatzen duenean edo aldaketak gertatzen direnean erakundeetan, kontrolerako egituraren edo garatutako jardueran.

Compliance Penal Kudeaketa Sistemarako beharrezkotzat jotzen den barneko eta kanpoko informazio dokumentatua Compliance Organoak kontrolatu behar du.

Arrisku penala prebenitzeko gobernantza esparrua osatzen duten dokumentuak hauek dira:

- Jokabidearen kodea.
- Compliance Penal Sistemaren Kudeaketa Eredua.
- Arrisku penalaren araudia.
- Ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako politika.
- Administrazio publikoekin jarduteko protokoloa.

4.1. Salaketetarako kanala

Erakundeek Jokabide Kodearen ez betetzeak edo irregulartasunak eta delitu zantzuak dituzten jarduerak komunikatzeko kanal bat dute.

Kanalaren ezaugarriak hauek dira:

- a) Barnekoa, erakundeetako langile guztientzat, eta kanpokoak, hirugarrenentzat.
- b) Ez betetze posibleak edo salaketak era anonimoan edo pertsona identifikatuta komunika daitezke.
- c) Komunikazioak posta elektronikoaren edo posta helbidearen bidez egin daitezke.
- d) Kanalaren kudeaketak komunikatutako gertaeren segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen du.

4.2. Etengabe kontrolatzea eta gainbegiratzea

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko sailak kudeatzen du delituen arriskua prebenitzeko eredia; beraz, hark du, bigarren defentsa lerro gisa, urtero arrisku penala kontrolatzeko eredia berrikusteko ardura.

Eredua berrikusiko da, halaber, legegintzako aldaketek edo antolamenduko aldaketek eskatzen dutenean. Azkenik, eredia berrikusiko da, gertaeraren bat gauzatzen denean.